

#udaltop16



udaltop

**UDALETAKO  
EUSKARA  
ZERBITZUEN  
TOPAKETAK**

ONGI ETORRI  
EUSKARAREN  
MUNDUETARA:  
NORK NORI?  
BEGIRADA  
(KOMUNITARIO) BAT  
IPAR EHTIK.

[www.udaltop.eus](http://www.udaltop.eus)

ENEKO GORRI GANTIER,  
PLAZARA



Euskararen biziberritze prozesua zuzenki inpaktatzen duten eraldaketa soziodemografiko sakonak gertatzen ari dira Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xiberoko 158 udalerrietan. Eta badirudi, gainera, aldaketa hauek azkarrago ari direla gertatzen pandemia biharamunetik hona. Lapurdi kostaldeko hirietatik Baxe Nafarroako herrixketara, azken bi urteetan etxe salmenta espekulatiboek agenda mediatiko, politiko eta soziala okupatu dute.

Gibelean, 'Ipar Euskal Herrira bizitzera etorritako Paristar dirudunaren' figura inposatu da jendeen errepresentazioetan eta herri kontakizunean.

Migrazio saldoa positiboa duen lurralde erakargarria da Ipar Euskal Herria. Baina nor dator bertara bizitzera? Aurreiritzietatik haratago, zer errealitate gordetzen da biztanleriaren mugimendu horietan? Zer eragin euskara eta euskal kulturaren osasunean?

Nola kokatzen gaituzte etorri berriek gure euskalduntasun gutxiagotuarekin? Nola erakarri euskararen munduetara? Nola saihestu erreakzio xenofoboak? Galdera hauei (eta beste batzuei) erantzuten saiatuko gira datozen lerroetan.

---

## AURKIBIDEA

<b>ATARIKOA</b>	<b>3</b>
<b>SARRERA</b>	<b>4</b>
<b>1. TORRI BERRIAK, LAPURDI, BAXE NAFARROA ETA XIBEROAN</b>	
1.1. 3 datu Ipar Euskal Herriari buruz.	5
1.2. Nor dira etorri berriak?	6
1.3. Etorri berriak eta Euskara	8
<b>2. ETORRI BERRIEN EKOSISTEMA</b>	
2.1. Nola ikusten dugu etorri berria?	9
2.2 Segmentazio berri bat	10
3.2. Dinamika proposamen bat	10
<b>3. ON! SENTSIBILIZAZIO DISPOSITIBO PARTEKATUA</b>	
3.1. Etorri berriei harrera egiteko dispositiboa.	11
3.2 Lau ekintza	12
3.3. Jendartea bere aniztasunean	12
<b>KONKLUSIOA</b>	<b>13</b>
<b>BIBLIOGRAFIA</b>	<b>14</b>

## ATARIKOA

Anekdota pertsonala batekin ideki nahi genuke idazki hau: 15-25 urte artean, Euskal dantzari esker deskubritu ahal izan genituen Euskal Herriko txoko asko eta mundu zabaleko beste batzuk ere. Lagunekin herriz herri, plazaz plaza ibili ginen, dantzan, kantuz, bestan... Jende asko ezagutzeko aukera izan zen. Hauen artean, Lapurdi barnekaldeko herri txiki bateko dantza irakaslea zen lagun bat.

Behin azaldu zigun, dantza irakasle gisa, bere herrira bizitzera heldu zen pertsona bakoitzaren etxera joaten zela, ate joka abisatu gabe. Herritar berri hauei herriaren ohiturak, zerbitzuak eta sareak zein ziren aurkezten zizkien besteak beste. Ondoko herritik jinak edo Frantzia iparretik, berdin berdin. Herri horretako biztanle berri guzietan harrera berdina eskaintzen zizkien.

Erran geniolarik herritar hauek xantza handia zutela horrela errezibituak izatea, erantzun zigun ez zuela hori egiten 'haientzat', 'guretzat' baizik! "Haiek ez badute herriko bizian parte hartzen, denak gira galtzaille! Haiek ere inplikatu behar dira:

- herriko besten diru bilketan,
- kaskaroten etxez etxeko itzulian,
- kabalkadaren jantzi jostean,
- ..."

Sobera luzatzeko beldurra ez bagenu, Ipar Euskal Herrian komunitateak eta herri kulturak duen garrantzia garatzen ahalko genuke hemen, baina funtsezko informazioa beste nunbait da: etorri berriei harrera egokia egitean denek asko dugu irabazteko.

## SARRERA

Jendartearen eraldaketa xede duten politika publiko guziek bezala, hizkuntza politikak ere biztanleria informatzeko eta sentsibilizatzeko estrategia bat suposatzen du. Komunikatzeko manierak eta publikoa etengabe aldatzen ari diren mundu honetan, euskarrien eta edukien egokitze baten beharra agertzen da.

Pedagogia soziala ezinbestekoa da lurraldeko kodeak ez dituzten baina bertara bizitzera etortzeko hautua egin duten biztanle berriengana iristeko.

Horren garrantziaz konbentziturik eta azken hamarkadan metatutako esperientziak indarturik, Plazara elkarteak gai horrekin aitzina egiteko erabakia hartu zuen. Instituzio publiko nagusiekin proiektua partekatu ondoren hasi zen lanean:

- 2017-2023: 7 urteko esperientzia mintzalasai.eus webgunearen kudeaketan.
  - o 2020ko konfinamenduan funtzio garrantzitsua izan zuen.
  - o 2021ean xarta editoriala birdefinitu zen.
  - o 2022an tresnaren ebaluaketa zehatza egin zen.
- 2020: "Ongi etorri: euskaltzaleasuna sustatzeko ekosistema komunikatiboa" ikerketa akademikoa egin zen.
  - o 62 orriko lana (diagnostikoa, benchmark, ekintza plana, elkarrizketak...)
  - o 2020ko Hausnartu-Txillardegiko soziolinguistika saria.
  - o Eranafarroa, Emangiltza.eus, Elaide... tresnen azterketa.
- 2023-2024: Gogoeta parte-hartzailea: 15 eragilerekin (elkarte eta instituzio), proiektua lantzeko.
  - o Egun erdiko 6 bilkura ireki.

Txosten horretan, proiektu zabal horrek etorri berriei buruz eramandako gogoeta landuko da bereziki. "Ongi etorri euskararen munduetara: begirada komunitario bat Ipar EHTik" du izenburua.

Gai hori 3 punpez jorratuko dugu:

- 1) Nor dator Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xiberura bizitzera?
- 2) Zertara datoz eta nola bizi dira?
- 3) Nola iritsi gaitzke haiengana?

# 1. ETORRI BERRIAK, LAPURDI, BAXE NAFARROA ETA XIBEROAN

## 1.1. 3 datu Ipar Euskal Herriari buruz.

Ipar EHa "3" zenbakiarekin laburbiltzen ahal genuke: 3 lurralde, 3.000km<sup>2</sup>, 300.000 biztanle eta urtero 3.000 pertsona berri kanpotik datoz lurralde honetara bizitzera. Beste molde batean erranik, kostaldea eta barnealdearen artean kontraste handiak dituen lurralde txikia da. Bere etorkizuna bere gain hartzeko tresna juridiko-administratibo gutti ditu, baina aldi berean bere etorkizuna bera eraldatuko dute duten faktore soziodemografiko sakonak bizitzen dituen lurraldea da ere.

Euskararen aldetik, 25 urtez gaitzeko aitzinamenduak ezagutu ditu Ipar Euskal Herriak:

- Euskararen aldeko kontsentsu sozio-politiko azkarra eraiki da.
- Euskarazko irakaskuntza eskaintza eta eskaera asko garatu da sail eta eredu guzietan.
- Instituzioak ados jarri dira Hizkuntza politika baten egituratzeko eta EEP bezalako tresna eraginkor baten sortzeko.
- Gazteria geroz eta euskaldunagoa da.
- Helduentzat euskara ikasteko moldeak ez dira sekulan hain anitzak izan.
- Duela 7 urte HP konpetentzia duen Herri elkargoa sortu da.

Baina errealitatea oraindik dorpea da:

- Biztanleriaren %20a euskalduna da.
- Kale erabilera %5ekoa (Baionan gaztelera gehiago entzuten da euskara baino).
- Euskarak ez du ezagupen ofizialik.
- Euskararen kontrako diskurtsoak entzuten hasi gira.
- 2024eko udaberrian EEP krisi politiko eta ekonomiko batean sartu da.

## 1.2. Nor dira etorri berriak?

Munduko txoko gehienetan bezala, Euskal Herrian ere aurreiritzi asko dugu etorri berriei buruz. Azken bi urteetan, Plazara egiturarekin euskararen biziberritzeari buruzko tailer andana eskaintzeko aukera izan dugu, publiko desberdinekin: eskoletako gurasoak, turismo bulegoetako langileak, instituzio publikoetako agenteak, herritar aktibatuak, kultura eragileak, hautetsiak... ia aldi guziz atera da "etorri berrien" gaia, "Paristarrak – Dirudunak – Erretretadunak" triptikoarekin.

Estigmatizazio horretatik haratago, bizi giren lurraldeen arabera, imajinario arrunt desberdina mobilizatuko du "etorri berriak".

- Miarritzen kokatuz gero, 28 urteko gazte hyperkonektatua ikusiko dugu.
- Itsasun kokatuz gero, 35 urteko familiatxoa ikusiko dugu.
- Domintxinen kokatuz gero, erretreta hartzera etorritako bikotea ikusiko dugu.

Errealitate horren objektibatzeko elementu batzuk partekatuko ditugu hemen Gaindegiaeren 2019ko ikerketa batean ("Euskal Herria: harrera herri bat, bi errealitate") eta AUDAP egiturako zuzendariak Enbata hilabetekarian ekarritako elkarrizketa mamitsuan oinarrituta.

Ipar Euskal Herrian 2020an:

- 12.135 etorri berri zenbatzen ziren - 8.917 ateratze: saldoa 3.000 pertsonakoa gutti gora behera.
- Etortzen diren gehienak 20-49 urte artekoak dira eta %18,6 erretretadunak.
- Gehienak Grand Sud Ouest eskualdetik etorriak dira, ta ondotik Parisetik.
- Joaten diren 1/3 ikasleak dira.
- Lpaurdi kostaldean eta kostalde hegian kokatzen dira.
- Ipar EHra ez gira kasualitatez heldu: aukera profesionala, opor ondoko hautua, bikotea, herrira itzultzea...
- Pandemia biharamunetik fenomeno berria: tartekako herritarrak. 3 egun EHan, 5 egun kanpoan. Horrek inklusioan pausatzen dituen galderekin...

Fokua pixka bat gehiago zabalduz, Ipar / Hego Euskal Herrien dinamikak erabat antagonikoak direla ohartzen gira:

- Ipar EHan: biztanleen %42,8 Ehtik kanpo sortu da. /// Hego EHan: % 27.
- Ipar EHan: %96,3a Hexagonotik dator. /// Hego EHan: %61a Penintsulatik.
- Ipar EHan: Grand Sud-Ouest & Parise. /// Hego EHan: Hego Amerika, Afrika, Europa Ekialdea...

## 1.2. NOR DIRA ETORRI BERRIAK?

Laburbilduz eta karikatura moduan Ipar Euskal Herrira datoz bizitzera kultura bakarreko jende aberatsak. Haien buruan, Frantses estatuko eskualde batetik, Frantses estatuko beste eskualde batera datoz, eredu elebkarrean eskolatuak izan diren hurrekin eta bizi kalitate idiliko batean bizitzera. Aldiz, Hego Euskal Herrira datoz bizitzera beren bizipen eta kultur aniztasunarekin lurralde bat aberastera eta lan merkatuaren beharrei erantzutera datorren jendea.

Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xiberoko erakargarritasuna urteetako politika publikoen ondorio zuzena da.

- Lurralde marketinak Euskalifornia, masazko festak, kultura folklorizatua... saldu ditu hamarkada luzez, publizitate eta promozio kanpaina bidez.
- Garraio aldetik, periferiak metropolia handietatik hurbiltzeko garatu dira abiadura handiko trenak.
- Etxebizitza eztanda sortzeko neurri fiskal akuilatzaileak sortu dira (Pinel legea...), dirudunek inbertsioak egiteko gisan.

Horri gehitzen bazaizkio telelanaren eztanda eta Covid ondoko metropolia exodoa, hobeki ulertzen da zergatik eta nola bilakatu den Ipar Euskal Herria milaka herritarren helmuga.

Berez eta printzipioz, lurralde erakargarri batek ez luke arazorik pausatu behar, ondorioak aurreikusten badira eta lurraldearen mugetara ez bada iristen. Baina Ipar Euskal Herriaren kasuan, biztanleriaren emendatzeak ondorio zuzenak ditu alor askotan:

- Mugikortasuna eta autometatzeak.
- Etxebizitzaren prezioak.
- Laborantza lurren galtzea.
- Euskara eta euskal kultura.

Azken puntu horretan zentratuko gira gehienbat.

### 1.3. Etorri berriak eta Euskara

Atal horretan, bi ideia nagusi jorratu nahi dira:

- Lehena da Ipar EHra iristean, etorri berriei hizkuntzaren gaia laster agertzen zaiela begipean...
- ... baina paradoxalki hizkuntza dela lurrartzeko / herritartzeko azken elementua.

Azken urteetan etorri berriekin izandako elkarrizketetan (tailer, formakuntza, harrera eta erakusmahaietan), erraten digutena da "Frantses estatuko beste eskualdeei konparatuz" Euskal Herrian badela "oraindik" nortasun eta kultura azkarra, euskara "oraindik" presente dela. Pasatzen diren populazioek ere (turista, bidaiari, kongresista) hizkuntzaren presentzia segidan ikusten dela diote.

Bide seinale, kartelak, eraikin publikoen seinaleetika... hori da jendeak lurralde batean ikusten duen lehen gauza. Eta azken 20 urteetan hizkuntza paisaia asko euskaldundu da gure txokoetan. Horrek etorri berriari mezu argi bat bidaltzen dio: hemen, euskara paisaia publikoan presente da.

Lehen inpresio hori biziki inportantea da eta gure alde erabili behar dugu. Lehen egunetan egiten ez badugu, jendea nola mintzo den ikustean eta gaia pixka bat karrakatuz, laster irudituko hori axala baizik ez dela eta euskararik gabe bizi gaitzkeela Ipar Euskal Herrian. Ideia hori barneratua izanen dutelarik, beti izango da disonantzia bat gure diskurtsoa eta herritar berri gisa bizi dutenaren arabera. Beraz lehen aholkua goiz hastearen garrantziari buruzkoa da.

Bigarren gogoeta gisa: herritartze prozesu batean, hainbat urrats direla azpimarra dezagun. Lehen urratsa izan daiteke inguratzen zaituena hobeki ulertzea, ezagutzea... toponimia, arkitektura, tokien historia, plan onak... Ondotik sare sozio-afektibo bat garatzea: lagunak, auzoak, lankideak, elkarteetako kideak... Kultura, ohiturak, kirola edo besten ezagutza finagoa izatea litzateke oraindik urrats bat gehiago. Horrela segitzen ahal genuke etorri berriaren herritartze ibilbide posible bat marrazten. Baina gehien gehienetan euskara azken urratsa izango da.

Ikusten ditugu jende batzuk hemen bizi direnak duela 10, 20, 30, 40 urte. 'Basque' sentitzen dira (eta sentimendu hori ezin zaie ukatu), baina ez dute inolako harremanik euskararekin. Alta, abesbatza batean kantatzen dute, auzo elkarte bateko kide dira, astero errugbi partiden ikustera joan dira, mutxikoak ikasten ari dira... Baina euskarari bizkar emanda bizi dute haien "basquitude" delakoa. Ez beti fede txarrez edo oposizioz; gaia ez baita haien bizi esperientzian pausatu, ez baita agenda mediatikoan sartua. Ta irudi aldetik, euskara beti sentitu izan dute zerbait urrun, zaila, luze, politiko, natibo... bezala.

Horri gehitzen bazaizkio jendarte postmodernoen ezaugarriak (jendarte likido, indibidualismoa, teknologia berrien dependentzia...), euskararen munduetara iristeko bide berriak diseinatzeko premiak agerikoak zaizkigu.



## 2. ETORRI BERRIEN EKOSISTEMA

### 2.1. Nola ikusten dugu etorri berria?

Askotan etorri berria ikusten dugu, etorri berria ikusi beharrean. Haiengan gutxieneko eragin bat izan nahi badugu, etorri berrien perfil aniztasuna, bakoitzaren ibilbide eta ekosistema eta mudarako duten gaitasuna aintzat hartzea ezinbestekoa da.

Jendeak ez dira uste bezain estatikoak, baldituak, geldituak. Nortasun indibidualen iraultza bizitzen ari giren garaiotan, asko dugu transmititzeko euskararen lurraldea hautatu dutenei.

### 2.2. Segmentazio berri bat.

Soziolinguistikan, hainbat irizpideren arabera egin izan ditugu sailkapenak, segmentazioak, etiketak. Gure aldetik, eragiteko baliagarria zaigun segmentazio bat landu dugu bi irizpide gurutzatuz: hizkuntza gaitasuna – hizkuntzarekiko harremana. Ez da perfektua, baina balio ongi definitzeko eta zer behar duen identifikatzeko.

Etorri berrietara itzuliz, uste dugu ezin dugula segmentu batean eragin besteetan eragiten ez badugu. Gure jendartean, bakoitzak badu euskararekin korapilotxo bat konpontzeko (bestela ez ginateke hemen izango). Eta ez baditugu patologia txiki guzi hauek batera sendatzen, inklusioak edo harrera linguistikoak ez du funtzionatuko.

- Iritsi berria:

- o Interesa izan dezake, gaiaz gutti daki, baina irekidura bat izan dezake.
- o Gaiari buruz informatu, gomiatu, lagundu...

- Erdaldun urruna:

- o Axolabea da, ez du gaiarekin interesik, informazio maila apala duenez aurriritzi asko ditu (edo iritzi prefabrikatuak).
- o Beharra: erronkei buruz informatu. Bere ekarpena zein izan daitekeen agerian eman...

- Begirunezkoa:

- o Pertsona idekia, aldekoa, engaiatua...
- o Aliatua, aldekotasun aktiboa landu.

- Inplikatua:

- o Zuzenki hunkia da (guraso da, bikote euskalduna du, ingurune sozioafektiboa, lan ingurumena...).
- o Aktibatu, ikastera lagundu...

## 2.2. SEGMENTAZIO BERRI BAT

- Ikasten ari dena:
  - o Aktiboki edo pasiboki ikasten ari.
  - o Motibatu, lagundu, sostengatu.
- Konplexatua:
  - o Ulertzen du, baina mintzatzea zaila. Euskalkiaren lotsa, ez alfabetatua.
  - o Segurtatu, hobendun sentimendua kendu...
- Pasiboa:
  - o Frantsesa hobesten duen pertsona publikoki.
  - o Ohiturak aldatu, aktibatu.
- Aktiboa:
  - o Kontzientea, aktibo eta aktibista.
  - o Babestu, aliatu, erabilera ahalbidetu.

## 2.3. Dinamika proposamen bat

Lehenago zehaztu bezala, ikuspuntu dinamiko batetik uste dugu dinamika bertutetsu bat sortzen ahal dugula. Hots, etorri berria kategoriatik bestera ekartzeko aukera badela.

Guk ez dugu deus asmatu: badu hamarkadak eta hamarkadak gure hiztun komunitatea gai dela jende berria euskararen munduetara sarrarazteko.

Urtarrilean Languages lanean jardunaldian agertu zen kooperatibak izan zirela Espainia hegoaldeko etorritako langileak euskalduntzeko espazioak.

Ikastoletan sortzen diren sozializazio eta tresnek gurasoak ere euskalduntzera ekartzen dituzte. 80. hamarkadetan rock erradikalaren giroak jende asko ekarri zuen euskarara. Ipar Euskal Herrian, Bizi eta Alda bezalako herri mugimenduek ere gazte aktibista asko euskaltegiara bideratu dituzte...

Zerrenda asko luzatzen ahal genuke oraindik. Baina garrantzitsua da ohartaraztea deus ez dela kasualitatea. Antolatua da, progresio bat bada, bestearen errespetua, deszentratze bat, akuiluak, txaloak, sustenguak... Horiek izan daitezke, besteak beste, etorri berriak euskararen munduetan barna bidaiarazteko pasaporteak.

## 3. ON! SENTSIBILIZAZIO DISPOSITIBO PARTEKATUA

### 3.1. Etorri berriei harrera egiteko dispositiboa.

“ON! Piztu euskara(z)” Ipar EHko euskalgintzako eragileek eta instituzio publikoek elkarlanean definitzen duten eta osoki horri dedikatutako elkarte batek obratzen duen sentsibilizazio dispositiboaren izena da.

Proiektu egituratzaile honek 3 xede nagusi ditu:

- 1) Euskararen biziberritzearen erronka agenda sozial eta mediatikoan kokatu, molde eraikitzaile eta positiboan, hartzaileen beharrak erdigunean kokatuz.
- 2) Elkarte eta instituzioen arteko lankidetzaren dinamizazioa indartu, proiektu egituratzaile, eraginkor eta partekatu baten inguruan.
- 3) Ipar EHari egokitutako tresna eta ekintzak sortu, Hego EHko eduki eta dinamizazio oinarri mugaz gaindiko dimentsio azkar baten finkatzeko.

ON! dispositiboaren ambizioa lurralde eta hizkuntza mediazioa egitea da, on-boardinga, herriratzea, aktibazioa...

### 3.2. Lau ekintza

Digitala, papera, egoitza fisiko bat eta terrenoko ekintzak konbinatzen dituen multimedia-estrategia batean oinarritua da “On!” dispositiboa.

Bere baitarik elikatzen den komunikazio-ekosistema sortzea du helburu:

- 1) Webgune erreferentea eta sare sozialak.
  - a. Euskararen ataria (berriak, lan eskaintzak, agenda, aurkitegia, baliabideak, aurkitegia, mapa, ohiko galderak, tutorialak...)
  - b. Sare soziala (infografiak, bideo laburrak, euskarari buruzko kronikak...).
- 2) Baionako herentokia (100m<sup>2</sup>).
  - a. Espazio idekia toki ikusgarri batean, jendearen errezibitzeko (denda, info puntu, kafetegi, mintzatoki, liburutegi, baliabide zentro...).
  - b. Elkarte, norbanako eta kolektiboentzat lan espazio partekatua (bilkura, formakuntza, bulego, kopiagintza...).
- 3) Informazio liburuxkak.
  - a. Informazio orokorreko 4 liburuxka (16 orrialde – Euskara eta bere eragileak – Irakaskuntza gurasoei azaldua – Euskara ikasi helduaroan – Euskarazko aisialdi eskaintza).
  - b. Kit sortzeak (euskara etxean – ongi etorri eskolara / haurtzaindegira – hautetsien kita – etorri berriak...).
- 4) Terrenoko ekintzak.
  - a. Erakusmahai partekatuak (besta, merkatu, elkarte foro, eguberriko azoka...).
  - b. Ihes-jokoa eta beste.

Diskurtso inklusiboa, pedagogikoa, enpatikoa eta inspiratzailea hedatuko du, erabiltzailea eta haren beharrak prozesuaren erdian kokatuz.

### 3.3. Etorri berriak eta Euskara

Dispositibo honen baitan sortu materiala jendarte osoari zuzenduko zaio, bere aniztasunean eta bakoitzaren beharretara egokituz.

Horretarako, publikoen segmentazio bat landu da, tipologiak definitzeko.

- 1) Haur euskaldunen gurasoak (euskaraz eskolatuak edo haurtzaindegi euskalduna).  $\approx$  14.000 pertsona.
  - a. Euskaldunak.
  - b. Erdaldunak.
  - c. Euskaldungaiak.
  
- 2) Euskara ikasten duten helduak.  $\approx$  1.500 pertsona.
  - a. Euskaltegian / Ikastaldian / Barnategian.
  - b. Beren baitarik.
  - c. Lan orduetan.
  
- 3) Euskaldunak.  $\approx$  75.500 pertsona.
  - a. Euskaraz gehiago bizi nahi duena.
  - b. Aliatu izan nahi duena.
  - c. Gaitu nahi dena.
  
- 4) Interesa duten erdaldunak.  $\approx$  150.000 pertsona.
  - a. Guraso edo ikasle izan gabe, erronkak ulertu nahi dituenak.
  - b. Euskara ikasten hasi nahi duena.
  - c. Hautua egin ez duena.

## KONKLUSIOA

3 ideia berriz honera ekarriz itxi nahiko genuke txosten hau:

- Euskarara hurbiltzea prozesu bat da, prozesu luzea, iraunkorra, kasik etenik gabe. Hurbiltze eta urruntze fasez osatua dena.
- Ikuspuntu dinamikoa eta ekosistemikoa inportantea zaigu.
- Herri kulturatik asko lor dezakegu.

Gehigarri gisa:

- Etorri berriekin lan egiterakoan, diskurtsoaren pertinentzia zaindu behar da. Paternalismoan, autoritate aginduan edo hiperzentratzean lerratzeko arriskua bada. Zer EH eta zein mundu eskaini nahi dizkiogu?
- Etorri berri batzuek hexagono mailako tendentzia politikoen inportatzen dituzte, eta pil pilean diren gaiak nazionalismoa, arrazakeriaren gorakada, erantzun errepresiboak, gibelerat egite, deklinismoa dira... hau ez da gure inklusio eredua.
- Egoera konplikatuan gira, baina egoerak asmamen handikoak izatea behartzen gaitu. Asmatu beharko ditugu etorri berriak gure komunitateko kide bilakatzeko tresna eta mekanismo berriak. Eta sortzaile izate horrek berak egiten du gure borroka ederra dela. Aitzineko belaunaldiak bezala, ez gira etorkizunaz beldur, hura aldatzeko anbizioa dugulako.

## BIBLIOGRAFIA

AMONARRIZ, Kike (2019). *Euskararen bidegurutzetik*. Tafalla: Txalaparta.

CHAMORRO ARMENDARIZ, marta (2016). *Hirugunean ezagutzatik erabilerarako jauzia egiteko eta harreman sareak euskalduntzeko eremu digitalaren ustiapena: markoa eta praktiken proposamena*. Hiznet.

DUGUINE, Isabelle (2017). *La motivation d'apprendre le basque chez les adultes francophones*.

Euskaltzaindia (2017) *Euskal Elkargoaren sortzea eta euskararen geroa*.  
Euskara faktore integratzaile gisa: etorkinak.

GAINDEGIA (2019) *Euskal Herria : harrera herri bat, bi errealitate*.

GORRI, Eneko (2018) *Erdaldunak aktibatzen diskurtsoak Mintzalasai eta BAM! Maila diskurtsiboan*

GORRI, Eneko (2020) *ONGI ETORRI. Euskaltzaletasuna sendotzeko ekosistema komunikatiboa*

Kolektiboa (2009). *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak*. Eusko jaurlaritza.

LIZARRALDE, Saioa – BLANCO, Gorka (2011). *Erdaldunak euskarara eta euskara planetara hurbiltzeko hausnarketa saioak*. Udaltop.

udal**top**

**UDALETAKO  
EUSKARA  
ZERBITZUEN**  
TOPAKETAK

[www.udaltop.eus](http://www.udaltop.eus)